



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko ekainaren 9a

42 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa, Nafarroako Gobernua N-232 errepidea, Castejondik Cortesa, destolestu dezan premiatzen duena, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa, Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala, Jose M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Eunateko ermitari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Erriberriko gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruzko galdera, M^a Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (8. or.).
- 1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (9. or.).
- Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
- Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruzko galdera, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).

- Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (10. or.).
- Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoze Lezáun Foru Parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Autopista Vasco-Aragonesaren bidesariaren balizko murrizketari buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egin (12. or.).
- Euskararen Kontseiluari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egin (12. or.).
- Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruzko galdera, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak egin (13. or.).
- Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriari buruzko galdera, M^a Isabel Arbonies Bermejo Foru Parlamentari andreak egin (14. or.).
- 1996-1997 ikasturterako beken lehiaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia (16. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (20. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko maiatzaren 12an hartutako Erabakiaren bidez, hurrengo Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura: Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155 artikuluan ezarritakoarekin bat eta Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Aipatu Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak Biltzarreko Mahaia-
ren aurrean aurkezteko epea irekitzea. Epe hori bukatuko da Foru Lege proiektua eztabaidatzeko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegilea aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioen Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

ZIOEN ADIERAZPENA

Zirkulazioari buruzko Kodeko 222. artikulua aldatzeko berriak eutsi egiten dio nekazaritzako ibilgailuek ibiltzeko baimen berezia izateko zeukaten beharri, baldin eta, haien ezaugarri teknikoengatik, Zirkulazioari buruzko Kodeak berak baimenduriko gehieneko tamaina baino handiagoak badira.

Kontuan harturik, lehenik, ibilgailu horiek landabideetatik dabilzala eta oso noizean behin bakarrik dabilzala errepideetatik eta, bigarrenik, nekazaritzan aritzeko aldatu behar diren ibilgailu eta lanabesak anitz direla, komeni da nekazaritzako ustategien titularrei baimen berezien eskurapena erraztea.

Artikulu bakarra. Beste lerroalde bat gaineratzen zaio uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko 128. artikuluko 5.3 atalari, eduki hau izanen duena:

Nekazaritzako ustategien titularrek baimen bakarra eskatzen ahalko dute, sei hilabeterako balioko duena eta haien ustategian baimenaren beharra daukaten ibilgailu guztiak bilduko dituen. Tarifa 3.500 pezeta izanen da.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa, Nafarroako Gobernua N-232 errepidea, Castejondik Cortesa, destolestu dezan premiatzen duena

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernua N-232 errepidea, Castejondik Cortesa, destolestu dezan premiatuz aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaidatua izan dadin:

N-232 errepidearen Erriberan zeharreko zatia duela zenbait urtez geroztik trafiko-hazkuntza handia pairatzen ari den obra bat da. batez ere eta bereziki trafiko astunari dagokionean.

Gaiari buruz eginiko hainbat eta hainbat galderari erantzunez Nafarroako Gobernuak berak eka-rritako datuen bidez egiazaturiko errealitate honen aurrean, Hiruko Gobernuak azalduriko Gobernu

Programan jaso egiten zen aipaturiko errepidearen destolesketari ekiteko konpromezua, lehen fasea 1996ko Urrian Tuterako saihebidarekin hasiz eta Castejondik Tuterara eta Tuteratik Corteserako fasearekin jarraituz. Hau guztia, 95/99 legegintzaldiaren barnean, eta 8500 milioi pezetako kostu aurreikusi batekin hiru faseetarako.

1997. urte honetarako aurrekontu-eztabaidan zehar, Talde Sozialistak publikoki baieztatu zuen aurreko konpromezua bere egiten zuela eta Nafarroako Gobernuak N-232aren destolesketari ekingo ziola (gai honen inguruan, IU-EBren hainbat emendakinen kontrako botua eman zuten UPN eta PSNk, aipatutako errepidearen destolesketa finantzatzeko proposatzen genituen gehikuntzak beharrezkoak ez zirela argudiatuz).

Hau guztia dela eta, ondoko erabaki-proposamena egiten dugu:

1- Nafarroako Gobernua premiatzea Erriberan zehar Castejondik Cortesa doan N-232 errepidearen zatia destoles dezan.

2- Nafarroako Gobernua premiatzea, Espainiako Gobernuaren aurrean izapide egokiak egiten has dadin, azken honek aldi berean Kortez-Figueruelas zatia destoles dezan.

3- Nafarroako Gobernua beharrezkoak diren erreserba eta aurreikuspenak egin ditzan premiatzea, 1998. eta 1999. urteetako aurrekontuen kargura N-232 errepidearen Castejondik Cortesainoko zatiaren destolesketa burutu dadin, eskatzen den bezala.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 26a

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa, Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak Puerto Ricon heriotz zigorraren aurka burutzen ari diren kanpainaren alde agertzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuraren aurrean:

Fermín Arraiza, Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteko Burua, Ameriketako Estatu Batuek bertan heriotz zigorra ezartzearen aurkako kanpainari sartua dago bete-betean. Iparameriketako Auzitegi Federal batek hogeitaz gertatu gabeko, lan Rosario Montañez, hiltzera kondenatu dezake, zigor hau irlako Konstituzioan debekaturik egon arren.

Heriotz zigorraren eskakizun hau Puerto Ricoko Konstituzioaren aurkako eraso bat edo bortxaketa da, are gehiago, harrokeria kolonialeko keinutzat hartua izan da. Auzitegi Goreneko Buruak lege arazo bat baino gehiago afera morala dela esan du, herriaren baloreek, Konstituzioan dauden bezala, ez dutelako heriotz zigorra aintzakotzat hartzen.

Fermin Arraizak, Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteko Buruak, gai honi buruzko ponentzia azaldu zuen Puerto Ricoko Biltzarrean, eta hartar-

tik hartu ditugu -duten interesa, edukia eta irismena kontutan hartuz- ondorengo zatiak:

“Penagarria baino gehiago, iraingarria da Puerto Ricokoa ez den sistemak, arrotzak zaizkigun irizpideen bidez, Puerto Ricon heriotz zigorraren eskaera hutsak dakarren iraina inposatzea. Neurri hau basatia da, eta eskatzea basakeria bat.”

“Gizaki batek beste gizaki bat hiltzea eginkizun doilorra da gizateriarentzat, baina inork, ez gizakiek, ez gizakien ordezkariak, ez du doilorkeria eta ankerkeria erori behar mendekua hartzeko, zigortzeko edo disziplina ezartzeko; horrek bereizten ditu gizakiak eta basapiztiak. Heriotz zigorrak hilketaren ezaugarri guztiak ditu, eta aurretik erabakita inor hiltzeaz ari naiz.”

“Gizakiaren duintasuna bortxaezina da, gizakien bizitza kendu ezin den eskubidea da, biziari eta nazioek argi adierazitako borondateari errespetua eta begirunea zor zaizkie. Kanpoko indar batek Puerto Ricok modu argian azaldu duen borondatea hausteak dakarren zorigaitzoko eredu izan ez gaitzen eta une historiko honetan duintasun nazionalak eskatzen diguna egin gabe utz ez dezagun.”

Honengatik guztiarengatik honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu Nafarroako Parlamentuaren aurrean:

1. Nafarroako Parlamentuak sustengu tinkoa ematen dio Fermin Arraiza Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteko Burua Estatu Batuetako agintari federalek ezarri nahi duten heriotz zigorraren aurka egiten ari den kanpainari.

2. Puerto Ricoko Abokatuen Elkarteari, Puerto Ricoko Parlamentuari, Estatu Batuetako Presidenteari eta Estatu Batuek Puerto Ricon duten Auzitegi Federaleko Buruari erabaki honen berri ematea.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28an

Bozeramalea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala

JOSE M^a EZPELETA MARTINEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak mozia aurkeztu du, Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzeko: abortoa egiteagatik zigortu dituzten bi medikuendako indultu-eskaria dela eta hartu duen erabakia bertan behera utz dezala. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen mozioren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidaren lehenengo bilkura-eguneko eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestguía

MOZIOAREN EDUKIA

José María Ezpeleta Martínez "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkuraren aurrean.

Nafarroako Gobernuak, joan den hilaren 26an izandako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Parlamentu honek gutxiengoan dagoen UPNko Gobernuari eskatutakoa ez betetzea, alegia, aborto delitu batengatik bi urteko kartzela zigorra ezarri zaizkien eta egun baldintzapeko askatasunean dauden Bartzelonako bi medikuentzat indultua ez eskatzea Estatuko Gobernuari.

Gure ustez, joera honek UPNko Gobernu kontserbatzaileak agindutakoa ez betetzea dakar, gutxiengoan dagoenez Parlamentuaren proposamenei kasu egitea, alegia, eta abortoarenekin

nalizazioari dagozkion gizabanakoen askatasunen arloan joera atzerakoienetara lerratzen da.

Dagoeneko eskatu eta izapidatu da indultua, beste erakunde eta elkarte askoren artean Estatu-ko Parlamentuaren partaidetzarekin -bertan PPren Parlamentari Taldea abstenitu egin zelarik, honela, Parlamentu honetan kontrako botoa eman zuen UPNko talde kontserbatzailearena baino joera malguagoa eta toleranteagoa erakutsiz-, Bartzelonako Medikuen Elkartearenarekin edo Auzitegi Goreneko Bigarren Salarenarekin. Argi dago indultua emanen dela, sistema demokratiko batean harrokeriazko egintza politikoa eta Parlamentuarenganako mespretxua dakartzan Nafarroako Gobernuaren joera politiko prepotentea tartean izan arren.

Honengatik guztiarengatik, eta gaur, 1997ko maiatzaren 28an, Malagan 1986ko gertaera batzuegatik epaitu behar dituzten 34 lagunen kontrako makroepailetaren egunean, honako erabaki hau proposatzen da:

1. Nafarroako Gobernuari hauxe eskatzea: bere erabakia atzera bota dezala eta Nafarroako Parlamentuak eman dion agindua, aborto bat egiteagatik kondenaturiko bi medikuentzako indultua eskatzea, alegia, bete dezala.

2. Hitz eman arren, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren erabakia betetzera beharturik sentitu gabe hartu zuen erabakia gaitzetsi eta arbuizatzea.

3. Parlamentu honek gizabanakoen askatasunen defentsan duen konpromezua eta gai hauei buruz Estatuko Parlamentuan aurkeztu diren ekimenen aldeko jarrera agerian uztea.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 28an

Foru Parlamentaria: José María Ezpeleta Martínez

F Saila:
GALDERAK

Eunateko ermitari buruzko galdera*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Eunateko ermitari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Zalantzarik gabe, Eunateko baseliza nafar erromanikoaren erakusgarri onenatariko bat dugu. Bere ondotik Done Jakue bidea igarotzen da, eta Europa osotik Galiziarantz zihoazen milaka erromesen ospitale ere izan zen.

Bere balio artistikoa ukazina da eta bere eraikuntza-berezitasunak gure altxor arkitektonikoetako bat bihurtzen dute.

Egungo egoera bere kontserbazioari dagokionez erdizka onargarria da, eliza eta erantsitako eraikina gutxienik argi elektrikoz hornitzea beharrezkoa litzatekeen arren.

Hori guztia dela eta, zera jakin nahi litzateke:

– Ba al du Gobernuak baseliza eta erantsitako eraikinaren elektrizitate-hornidura ezaren berririk?

– Eunate 1997rako Nafarroako Gobernuak aurreikusitako inbertsioak, non zehaztuz: baselizan, bere kanpokaldean, edo erantsitako eraikinetan.

– Eraikin horiek gutxienekoaz, alegia, argiz, hornitzeari ekin behar al zaio?

– Ezezkoan, azalpen arrazoitua.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruzko galdera*BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Hizkuntza Eskubideei buruzko Kongresuaren ondorioen norainokoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarririkoren babesean, galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Berriki, hizkuntza-eskubideei buruzko biltzar bat egin da Iruñean; bertan Nafarroako Gobernuaren ere izan da Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia den Pérez de Viñaspre jaunak ordezkaturik.

Parlamentari honek Biltzar horretako ondorioen nondik norakoak ezagutzeko interesa du.

– Ondorioio horiekin zer egiteko asmoa du Gobernuak?

– Han trataturikoa betetzea nola erraztuko dute?

– Zer konpromezu hartu ditu Nafarroako Gobernuak, Pérez de Viñasprek ordezkaturik?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Erriberriko gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruzko galdera*M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Erriberriko gazteluaren ustiaketa turistiko eta kulturalari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Nafarroaren ondare publikoa den Erriberriko Jauregiaren ustiapen turistiko-kulturalaren kudeaketa momentu hauetan Atenea enpresa pribatuaren esku dago eta Jauregiaren sarreraren ondoan

jarritako karpa eramangarri batean izaera komertzialeko jarduerak egiten ari da.

Monumentu historikoa izanik, arrazoizkoa eta desiragarria da Jauregiaren ustiapen turistiko-kulturala, kultur eskaintza erakargarri baten bidez, orokorrean Nafarroaren eta bereziki Erriberriren onurarako izatea.

Jauregiarekin zerikusirik ez duten elikagaien (ardo botilak, pastak, marmelada) eta bestelako materialaren (kamisetak, argazkigintzarako materiala eta abar) ustiapen komertziala Erriberriko Jauregiaren zerbitzu kudeaketa programan sartzen al da?

Karpa eramangarrian egindako jarduera komertziala baimendu al da?

Kudeaketa programaren ustiapen turistiko kulturalaren helburuaren kontrakoa al da?

Ez al dago Erriberri eta honen inguruko gizarte nahiz ekonomi jardueri kalte egiteko edo bertako komertzioari lehia desleiala egiteko arriskurik?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1996-1997 ikasturtean ikasleak haur hezkuntzan (3-6 urte) hizkuntza-aukeraren arabera eskolatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru

Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

– 1996-1997 ikasturtean Nafarroan Haur-Hezkuntzan (3tik 6 urtera bitartekoak) eskolaturiko ikasleen kopuru orokorra hizkuntza aukeraren arabera.

– 1996-1997 ikasturtean Nafarroan Haur-Hezkuntzan (3tik 6 urtera bitartekoak) eskolatutako ikasleen kopuru orokorra, hizkuntza aukera, zentroa eta kurtsoa adieraziz.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Eskualdeen Batzordeak Amsterdamen egin duen bileran Nafarroako Gobernuak izan duen presentziari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Eskualdeen Batzordeak Amsterdam hirian egin zuen azken bilkuran, Komunitate Autonomoetako ordezkariak botere handiagoa eskatu zuten Europako Batasunean gutxienez 2006 urtera arte laguntza europarrak handitzen saiatzeko eta horrela euro-an sartzeko eta per capita errenta hobetzeak suposatzen duten lehiaketarako ahaleginari eusteko. Honetaz gain, Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordearen bilera hurrengo hitzarmenean erregioek eskumen gehiago izan dezatela eskatzeko aprobetxatu zuten. Honengatik guztiarengatik honako hau jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak Europako Batasuneko Eskualdeen Batzordearen bileran izan al zen?

2. Nork ordezkatu zuen Nafarroako Gobernuak?

3. Bilkuran Nafarroako Gobernuaren ordezkari-tzarik izan bazen, nolako jarrera izan zuen? Zer argudio erabiliz? Zein izan zen bere botoa?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23a

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruzko galdera

JESUS JAVIER ARTEAGA OLLETA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Ministroen Kontseiluak onartu duen lege elektrikoaren aurreproiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Jesús Javier Arteaga Olletak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du Nafarroako Gobernuari, idatzizko erantzuna eskatuz:

Ministroen Kontseiluak Elektrizitateari buruzko lege berri baten aurreproiektua onetsi du. Aurreproiektu honek gehienezko tarifa bakarra ezartzen du lurralde osoan; dena dela, Industri Ministroak Komunitate Autonomoek eta Udalek gainordain edo errekaru gehigarriak ezar ditzaketela aitortu zuen. Honen aurrean jakin nahi da:

1. Nafarroako Gobernuak ba al du Ministroen Kontseiluak onetsitako lege aurreproiektuaren berri?

2. Nafarroako Gobernuak Elektrizitateari buruzko lege aurreproiektua aztertu al du?

3. Nafarroako Gobernuak argiaren prezioan errekaru gehigarriak ezarri behar direla uste al du?

4. Nafarroako Gobernuak bere egingo du bere osotasunean Legeak ezarritakoa edo, dituen eskumenen arabera, aldaketak proposatuko ditu Nafarroako Parlamentuak onets ditzan?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26a

Foru Parlamentaria: Jesús Javier Arteaga Olleta

Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Administrazio Auzitegiaren jarduerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek

xedatutakoaren babesean, ondoko galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak Administrazio Epaitegiak ebatzi gabe dituen 16.809 errekurtsioei buruz emandako erantzunaren aurrean, eta betetzera doazen bi lanpostuak alde batera utziz, honako hau jakin nahi da:

1. Neurri hau Administrazio Epaitegiaren funtzionamendu egokirako aski dela uste al du?

2. Aurkeztutako errekurtsioak aurkezten diren etik sei hilabeteko epean ebatzi ahal izateko jarduketak plangintzaren bat aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Los Fayosko urtegiaren eraikuntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

Komunitate honetako aldizkariren batean Los Fayosko urtegiaren eraikuntza-lanak geldirik daudela argitaratu da. Honen aurrean honako hau jakin nahi da:

1. Lanak geldirik baldin badaude, zein dira geldialdiaren arrazoiak? Geldialdia saihesteko neurri zehatzik hartu al da?

2. Zenbat denboraz uste da iraunen dutela geldirik lanek? Nafarroako Gobernutik nolako ekintzak egiten ari dira lanek aurrera jarrai dezaten?

3. Lan hauen geldialdia zenbat kostatu ahal zaio egunero Administrazioari?

4. Zenbat litro ur hartuko du orokorrean Los Fayosko urtegiak ukitutako nafar udalerrri bakoitzak? Nola banatuko dira erabilera desberdinak, hau da, giza kontsumoa, industriarena eta nekazariena?

5. Nekazariak hartu ahal izango duten urari dagokionez, ureztatze-sail berriak sortuko dira edo egun daudenen ur-horniketa hobetuko da?

6. Ureztatze-sail berriak sortzekotan, ureztatze-sail berrien plan nazionaletan aurreikusi al dira?

7. Zeintzuk dira Los Fayosko urtegitik ura jasoko duten industrialdeak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak Bertizko Jauregitik egurra ateratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezáunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari

atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du idatzizko erantzuna eskatuz:

ANAT-LANEk berriki salatu duenez, Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamentuak Bertizko zuhaitz hil eta erorien egurra atera du. ANAT-LANEk dioenez, okil taldea da Bertizko basoetako ondareetako bat, hauen artean desagertzeko arrisku handia duten espezie batzuk aurki daitezkeelarik, eta zuhaitz erori eta zaharrak dituzten basoak behar dituzte bizirik irauteko. Honengatik guztia-erengatik honako hau jakin nahi da:

1. Ingurugiro Departamentuak Bertizko Jauregiko zuhaitz eroriak ateratzea neurri egokia izan

dela uste al du?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 23a

2. Zer lortu nahi du Ingurugiro Departamentuak neurri hau hartzean?

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larráyoiz Lezáun

Autopista Vasco-Aragonesaren bidesariaren balizko murrizketari buruzko galdera

LUIS GERARDO LOPEZ ESLAVA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Autopista Vasco-Aragonesaren bidesariaren balizko murrizketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Luis Gerardo López Eslavak, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatzizko erantzuna eskatuz:

N-232 errepidearen Nafarroako zatian ibiltzen diren ibilgailuen gehiegizko kopurua dela eta, Herrilan kontseilariak Tuterako Erriberara duela

gutxi egin zuen bisitaldian Vasco-Aragonesa autobidean bidesaria gutxitzeak arazoa konponduko zuela adierazi zuen, errepidearen destolesketa baztertuz, Tuterako saihebidearenari dagokiona izan ezik.

Hori horrela, jakin nahi da:

1. Vasco-Aragonesa autobideko bidesariaren balizko murrizketa dela-eta, Nafarroako Gobernuak neurriren bat hartuko al du?

2. Neurri hau N-232 errepidearen Nafarroako zatian trafikoa gutxitzeko aski izanen dela uste al du Nafarroako Gobernuak?

3. Nafarroako Gobernuak, ukitutako herriek eskatzen duten bezala, N-232 errepidearen Nafarroako zatia destolesteko aukera berraztertuko al du?

4. Zein dira Nafarroako Gobernuak Tuterako saihebidetan N-232 errepidearen destolesketa egiteko aurreikusi dituen epe zehatzak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 26a

Foru Parlamentaria: Luis Gerardo López Eslava

Euskararen Kontseiluari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Euskararen Kontseiluari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau egin du idatzizko erantzuna eskatuz:

– Euskara Kontseiluaren bileretarako aurreikusitako datak.

– Egun osatzen duten pertsonak: Izen zerrenda eta zergatik dauden.

– Partaideen artean izan diren aldaketak eta zergatiak.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 27a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruzko galdera

JAIME IRIBARREN IRIARTE FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Eskualde euskaldun nahiz mistoan batxilergo artistikoa egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Ezker Abertzalea Talde Parlamentarioaren kidea den Jaime Iribarren Iriartek, Ganbararen Arautegiaren 184. artikularekin eta ondokoekin bat etorritik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Sailburua den Javier Marcotegui Ros jaunari ondoko galderak hauek zuzentzen dizkio idatziz erantzun ditzan:

1998-99 ikasturtean derrigorrezko ondoko Irakaskuntza, Batxilergo berriak, ezarriko dira. Berri-

kuntzak lau Batxilergo mota aurreikusten du, horietatik hiru Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan garatuko dira, Teknologia, Zientifikoa eta Giza Batxilergoa. Laugarrena, Artistiko delakoa, Nafarroa osoan bi Ikastetxeetan eskainiko da soilik: Korellan eta Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan.

Zonalde "Baskofono"ko nahiz "Mistoko" D Ere dutako ikasleei Artistiko delako Batxilergoa beraiek aukeratutako hizkuntzan eskeintzeko asmorik ba al du Hezkuntza Departamentuak?

Beraien eskubideak bermatzekotan baldin badago Departamentua eta Iruñeko Arte eta Lanbide Eskolan zentralizatzeko asmorik badago, horretarako aurrez planifikatu behar den Irakaslegoaren birziklapena kontutan al du zure Departamentua? Birziklapen deialdian lehentasunik al du honek? Programa berezia zehaztuko litzateke?

Irakaslegoaz gain D Eredu berri baten irekie-rak dakarren hornikuntzarako aurrezpenik ba al du zure Departamentuak?

Iruñean, 1997ko maiatzaren 30ean

Foru Parlamentaria: Jaime Iribarren Iriarte

Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 2an egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina Aurrekontu berrietan Nafarroako Unibertsitate Publikoa behar dituen bitartekoez hornitzeko aurreikusitako neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Isabel Arboniésekin, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Hezkuntzarako Bozeramaileak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten du:

Jakin ahal izan dugunez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Batzordeak, Aurrekontuetan erabili ez diren 400 milioietatik 300, estaliriko igerileku baten proiekturako bideratzeko erabakia hartu du. Ez gara arituko Iruñean jende guztiari irekiriko igerileku estali publiko bat ez egonik, unibertsitateko kideek, herritar guztion diruarekin, halako instalazio bat eduki ahal izatearen bitxitasunaz.

Gure ustez, arazoa gastu publikoaren arrazionaltasunean datza. Gobernu batzordearen erabaki horrek halako harridura bat sortzen du, kontuan izanik Hezkuntzako Parlamentu Batzordeak 1995eko maiatzaren 28an egin bileran, talde par-

lamentari guztiek Errektoreari honako hau jakinarazi ziotela: NUPen aurrekontuan, zeina zatirik haundienean diru publikoak finantzatzen duen, beste beharizan batzutarako bideratu ahal izango ziren 400 milioi baino gehiagoko soberakin bat egotea irregularra zela.

Garai hartan UPNren hezkuntza-arazoetarako bozeramailea zen Marcotegui jaunak berak ere esan zuenez, egoera honek barre-algarak eta tristura ergiten zizkion, eta NUPi ez zitzaioela eman behar zentroaren kudeaketa onerako beharrezkoa zena baino pezeta bat bera ere gehiago... NUPek ez zuela egiten aurrekontuak estutzeko beste hainbat erakundek egiten zuen ahalegin minimoa ere.

Horregatik, zera galdetu nahi diogu Hezkuntza Kontseilariari:

Zein neurri aurreikusi ditu Nafarroako hurrengo Aurrekontu Orokorrean NUPi behar hainbatekoak eta zehatzak diren bitartekoak emateko?

Zer iritzi dauka NUPek bere Estatutuetan aurreikusitako kontuhartzaile kargua sortu ez izanari buruz?

Ikuspegi juridiko batetik, sor al lezake Gobernuaren NUPeko Kontuhartzaile Ordezkararen figura?

UPNAko Gobernu Batzordearen erabakiak oraindik barre-algarak eragiten al dizkio, garai batean adierazi bezalaxe?

Iruñea, 1997ko maiatzaren 30a

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

1996-1997 ikasturterako beken lehiaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaraya Foru Parlamentari jaunak 1996-1997 ikasturterako beken lehiaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 7ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak 1996-1997 ikasturterako beken lehiaketari buruz eginiko galdera dela eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak hau dio:

1.- Beka lehiaketaren onuradun izan direnak, 1997ko martxoaren 4ko behin-behineko datuen arabera, hauek dira:

Ikasle eskatzaileak: 11.011

Beken onuradun izan diren ikasleak: 6.951

Kontzeptuak hona hemen:

Irakaskuntza: 4.704

Garraioa: 1.785

Jantokia: 434

Egoitza: 2.450

Apartekoa: 94

2. Ikasketen eta etxeko errentaren arabera irizpideak zehaztasunez daude garaturik 1996ko ekainaren 14ko 239/96 Foru Aginduaren bidez 1996-97 ikasturterako onetsi zen arautegian.

Onuradun kopuruari dagokionez, errenta tarteen eta ikasketa egiaztapenen arabera, taula honetan dago azaldurik:

	Ikasketa ertainetako onuradunak	Goi mailako ikasketako onuradunak	Guztira
1 errenta tartea	1.318	2.302	3.620
2 errenta tartea	583	1.315	1.898
3 errenta tartea	287	885	1.172
4 errenta tartea	40	221	261
Guztira	2.228	4.723	6.951

3. Nafarroako Gobernuak ematen dituen beka Hezkuntza Ministerioak ematen dituenen osagarri direnez, ezin ordain daiteke bekarik, doakionari eman eta jakinarazi bazaio ere, Hezkuntza Ministerioak zenbat diru eman edo ukatu dion ez bada-kigu. Horregatik badaude tartea, Hezkuntza Ministerioak ematen eta ukatzen dituen beka aldi-aldi jakiten direlako.

Hau jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betetzeko asmoz.

Iruñean, 1997ko martxoaren 18a

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

G Sails:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko ekainaren 4an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatuak xedatuarekin bat eta Nafarroako Parlamentuak Teknikarien Kidegoan dituen beharrezane aurre egiteko,

ERABAKI DA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarriekin bat egingen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko ekainaren 5a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoen erdi mailako teknikari-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

Hona hemen deialdi honetako oinarriak:

1. oinarria. Arau orokorrak.

1.1. Hona hemen deialdi honen xedea: Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari informatiko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatua gertatzen den izangaiak Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat ezarriak diren eskubideak eta betebeharrak edukiko ditu, eta, zehatz esanda, lanpostu honi ezarri zaizkion eginkizunak, besteak beste:

Biltzarreko zerbitzuei laguntza informatikoa ematea; Nafarroako Parlamentuan erreminta informatikoen erabilera planifikatu eta garatzea; erabiltzaileei euskarri tekniko eta prestakuntza ematea teknologia berrien erabilpenean eta aukeretan; ezarritako softwarea eta hardwarearen mantentzea; lanpostuen eskakizunetarako informazioa ezarri, antolatu eta berreskuratzea; aplikazioen ekoizkortasunari buruzko hobekuntzak proposatzea eta bere jakintza arloan eska dakizkiokeen antzeko zereginak.

1.3. Lanpostua, B mailan, Teknikoen Kidegoan sartuko da eta ordainketak maila horri dagozkionak izanen dira, gehi bateraezintasun osagarria, indarrean dagoen Nafarroako Parlamentuko plan-tila organikoarekin bat etorriz.

2. oinarria. Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileriaren Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu hori lekualdatze lehiaketa bidez hornituko da. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izanen dute Nafarroako Parlamentuko, Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioek, beti ere jardunean edo Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileriaren Estatutuko 24.1. artikulua j) eta l) ataletan zehaztu zerbitzu berezietan baldin badaude eta eskabideak aurkezteko epea amaitu orduko honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) B mailaren barneko funtzionarioa izatea.

b) Informatika-diplomatu, injineru edo arkitekto tekniko edo ofizialki baliokidetzat jotako beste edozein tituluren jabe izatea.

c) Sistema informatikoen erdi-mailako teknikari lanposturako izendatua izatea.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honetako 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu behar dira. Deialdiko 2. oinarriko 1. ataleko baldintza

horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, hautapen prozesuak diraueno eta izen-datu arte bete beharko direla ulertuko da.

3. oinarria. Eskaerak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera, eskabide gisa, deialdi honetan argitaratutako ereduari lotua, aurkeztu beharko dute, eta bertan ondoko hau azaldu:

Izen-deiturak, adina, nortasun agiri nazionalaren zenbakia, helbidea eta, baldin badu, telefonoa.

3.2. Eskaerari honako hauek erantsiko zaizkio:

a) Deialdi honetako 2. oinarriak aipatzen dituen baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

b) Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. Eraskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztariak, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko Lehendakari Andre Txit Garaiari igorriko zaizkio, eta lanegun eta lanorduetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Nagusian, Iruñeko Arrieta kalea, 12, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izango da.

4. oinarria. Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda horretan onartutako izangaien izen-deiturak agertuko dira.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko Mahaiak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartuko ez balitz, lehiaketa eman gabe utziko litzateke.

5. oinarria. Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

Hona hemen merezimendu lehiaketa epaitu behar duen Epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua: Joaquín Salcedo Izu jauna, Nafarroako Parlamentuko Bigarren Lehendakariordea.

Ordezkoa: Fermín Ciáurritz Gómez jauna, Nafarroako Parlamentuko Lehen Idazkaria.

Mahaikideak:

1. Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarak izendatuko du.

Ordezkoa: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzarak izendatuko du.

2. Francisco del Cerro Paúl jauna, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Orokorretako Burua, epaimahaiko idazkari arituko dena.

Ordezkoa: M^a Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea, Nafarroako Parlamentuko Teknikari Diplomataua.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, Epaimahaiko kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, Mahaiburuak kalitatezko botoa erabili ahal izanzen duelarik.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaiak ebatziko ditu, apezlazorik gabe.

5.5. Epaimahaiak behar dituen kanpoko aholkularitza izan dezake, lehiaketa honetako betebeharrak eta merezimenduak neurtu ahal izateko.

6. oinarria. Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honetako I. Eraskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu Epaimahaiak.

6.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek lekualdatze

lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duten unean.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezimendurik baloratu, ezta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

Atal ezberdinetan aipaturiko merezimenduak batu ondoren, atal bakoitzari dagozkion gehieneko puntuak gainditzen dituzten lehiatzaileak baldin badira, aipatu muga aplikatuko zaie ere, baina puntuazioak gutxitu egingo dira, beharrezko heinekotasuna gordetzeko.

6.4. Kanpoan geratuko dira eta, ondorioz, ezin dute lanposturik eskuratu guztizko puntuaketan 10 puntu baino gutxiago atera duten izangaiek.

7. oinarria. Izangaien zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. Lehiatzaile guztien merezimenduak baloratu ondoren, Epaimahaiak izangaien zerrenda, lorturiko puntuazioaren arabera, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari igorriko dio eta honek zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara ematea aginduko du.

7.2. Lehiatzaileetako inork gutxieneko 10 puntuak ateratzen ez baditu, Epaimahaiak lehiaketa hutsik uzteko proposamena igorriko dio deialdia egin duen erakundeari.

7.3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duen izangaiari emanen dio lanpostua eta haren izendapena Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

8. oinarria. Lanpostuaren jabetza hartzea.

8.1. Izendatutako izangaiek, izendapenari buruzko Erabakia jakinarazi eta ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan, hartu beharko du lanpostuaren jabetza.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiatzaileak lehiaketaren jarduketetatik sortutako eskubideei uko egiten dizkiela ulertuko da, eta hala izanik, lanpostua aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da.

9. oinarria. Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien eta izendapen-erabakiaren aurka administrazioarekiko errekurtsioa paratu ahalko da, indarreko lege-riak ezartzen duenarekin bat etorritik, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean, deialdia argitaratu denetik edo jakinarazpena eman denetik kontaktzen hasita.

Deialdi honetako xedapenen gainerako aplikazio egintzen aurka errekurtsio arrunta paratu ahalko da Parlamentuko Mahaiaren aurrean, hilabeteko epean, argitalpena edo eta jakinarazpena ematen den egunetik kontaktzen hasita. Errekurtso arrunta ebazteko erabakiaren aurka administrazioarekiko errekurtsioa paratu ahalko da Nafarroako Auzitegi Nagusiaren aurrean.

I. ERASKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Ikasketa tituluak.

– Karrerako ikasgai teknikoetan ateratako bikain bakoitzeko: 0,20 puntu, gehienez.

– Karrerako ikasgai teknikoetan ateratako ohorezko matrikula bakoitzeko: 0,30 puntu, gehienez.

– Goi mailako beste hainbat unibertsitateko titulu, bakoitzeko: 2,00 puntu, gehienez.

– Erdi mailako beste hainbat unibertsitateko titulu, bakoitzeko: puntu 1,00, gehienez.

– 2.1.b) puntuan aipatzen den karrerarekin zerikusia duten graduondoko prestakuntza-ikastaroak: puntu bat, gehienez.

Bete beharreko lanpostuaren izaera eta nolakotasunei nola egokitzen zaizkien, horren arabera baloratuko dira titulu akademikoak.

Merezimendutzat alegatzen eta baremoan espreski baloratzen diren lerrun akademiko handiagoko beste batzuk lortzeko haien jabetza ezinbesteko baldintza baldin bada, tituluak ez dira baloratuko.

1. atal honi dagokion puntuazioa ez da 5 puntutik gorakoa izanen.

2. Administrazio Publikoetan emaniko zerbitzuak.

a) Administrazio Publikoetan emaniko zerbitzuengatik, nomina eta plantilako funtzionarioa edo eta lan kontratupeko finkoa izanik, sistema informatikoen goi-mailako teknikari lanpostuan, urte bakoitzeko: 0,40 puntu.

b) Deialdi honen xede denaz bestelako lanpostu batean emaniko zerbitzuak, a) ataleko lerroalde egokiari koefiziente murriztaile hauek aplikatuz puntuatuko dira:

A maila (edo goi mailako titulazioa): 0,65.

B maila (edo erdi mailako titulazioa): 0,50.

C maila (edo Goi Mailako Batxilergoa edo haren baliokidea): 0,25.

D maila (edo Eskola Graduatua edo haren baliokidea): 0,15.

E maila (edo Eskolatzte Ziurtagiria): 0,10.

c) Aldi baterako edo bitarteko izaeran, edo behin-behineko lan edo administrazio kontratua izanik, emandako zerbitzuak, nomina eta plantilako funtzionarioek edo lan kontratatu finkoek egindakoak bezala puntuatuko dira, baina haiek %10 murriztuak.

Beste zerbitzu batzuekin batera emandakoak eta deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren ondotik emandako zerbitzuak ez dira kontuan hartuko.

Zerbitzu-urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan emandako egunei dagokien puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2. atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 5 puntu izanen da.

3. Lanbide curriculuma

a) Erdi mailako teknikari informatiko gisa izandako esperientzia, alor publiko zein pribatuan: gehienez 4 puntu.

b) Erdi mailako teknikari informatikoari dagozkion beste lanpostu batzuk betetzea alor publiko zein pribatuan: gehienez 2 puntu.

c) Lanpostuarekin zerikusia izanik, izangaiek egindako lan, argitalpen eta prestakuntza-ikastaroak, burutu beharreko zereginekin zerikusia dutenak: gehienez 1,5 puntu.

d) Lehiatzaileek dakizkiten hizkuntzak: gehienez 1,5 puntu. Bereziki baloratuko da ingelesa jakitea.

e) Bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten bestelako jarduerak: gehienez 0,5 puntu.

Curriculumaren atal honetan bereziki baloratuko dira lanpostuarekin zerikusia duten esperientzia, argitalpenak, ikastaroak eta lanpostuak.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez 5 puntu izanen da.

4. Txosten psikoteknikoa.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Psikologia Aplikatuaren Zerbitzuak, dagokion probak egin ondoren, lehiatzaile bakoitzari buruzko txosten psikoteknikoa emango du. Deitutako lanpostuaren izaera eta nolakotasunei lehiatzaileak nola egokitzen zaizkien baloratuko du bertan. Aipatu Zerbitzuak bere txosten psikoteknikoan lehiatzaile bakoitzari emandako puntuazioa loteslea izango da lehiaketaren Epaimahaiarendako.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 3 puntu izango da.

5. Elkarrizketa pertsonala.

Lehiaketako epaimahaiak elkarrizketa bat egingo du baremoaren gainerako ataletan gutxienez zortzi puntu atera duen lehiatzaile bakoitzarekin. Elkarrizketa hori deialdiko lanpostuarekin zerikusia duen edozein gairi buruzkoa izan daiteke.

Atal honi dagokion puntuazioa gehienez ere 2 puntu izanen da.

II. ERASKINA

_____, J/A.k,
 ___ urte eta _____ N.A.N. zenbakia duenak,
 _____n, _____ kalean, ___ zk.an,
 ___ pisuan, _____ posta kodea, bizi denak,
 _____telefono zk.a duenak, behar den begirunez,

AZALTZEN DU:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1997ko ekainaren 4ko Erabakiaren berri eduki duelarik, sistema informatikoen erdi mailako teknikari lanpostu bat betetzeko lekualdatze-lehiaketara deitzen duena, bertan parte hartu nahi duela.

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren betebeharreko baldintza guztiak betetzen dituela eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DU:

Eskaera honek aipatzen duen lekualdatze-lehiaketan onartua izatea. Eskatzen diren baldintzak betetzen direla eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak gaineratzen dira.

Iruñean, 1997ko _____ren ___(e)an.

Izenpea:

NAFARROAKO PARLAMENTUKO LEHENDAKARI ANDREARI

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko teknikari-lanpostua, euskara itzultzaile lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko deialdira eskaerak aurkezteko epea bukaturik, eta aipatu deialdiaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, ondoren onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzen da.

Onartuak:

IRIARTE CILVETI, Mikel

Iruñea, 1997ko ekainaren 3a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.800 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta, 12, 3</p> <p>31002 IRUÑEA</p>
--	---